

DELEND A EST CARTAGO

Duela bi mila urte eta geixago, bazeu uri bat, Ipar-Afrika itsas ertzean kokatua, Italiako ibai nauisiaren oinetatik urrun, bainan aurrez aurre zegoena. Kartago zuen izena. Muru latzez inguratutik, gerla egiteko prest zegoen beti.

Juno jaunkasko bere egoitzatzen eta erritzat autatu omen zuen. An zeukan, izan ere, bere iskulen, an gerla-gurdia. Tiurok izan omen ziren erri famatu onen asentatzaileak. Otsa ala zen beintzat. Amaika buru-puskatze eman zion Kartagok, eman zionez, Erromako uri buruzagiarri, erri-eskubideen seaska eta sortzaile zen Erroma-ri. Ortik dator meatuzko esacera: —"Delenda est Cartago". Au da, "beaz da errautsi Cartago". Esanaz bezala, Kartago zutik dagoen artean, ez dugu pakerik, ez eta tranlik bizitzarik ere.

Emen eta orain, Kartagoren izenaz eta izatez, gure arteko edo barneko indarkeria izandatu nai dut, esku gogorrez eta kolore gorritz azpimarratuz.

Pena da gu, suskaldunak, anbeste urteren buruan kanpoko indarkeriaren kontrari geramok, azkenean, tonto eta kokol gure anai arteko indarkerian katigatzea. Bestalde, ez noiz manikeo edo Mames-en segile, alde batean "xuriak" eta bestean "beltzak", emen "onak" eta "gaiztoak", an "argia" eta or "iluna" ipiniatz, xinpelkeriaren errezaz.

—Ezinbestez, gogo-otzez eta zaarbizdez Euskaltzaindriak buruz izi bi.—

"Zeruko Argia"-n (Ekainak II-1972) ala dio Larresorok, 7-garren orrian: —"Orain dela egun batzuk, Nobela-Sariaren arazo ezin lotsagarriagoa ikusi dugu: Euskaltzaindia bere buruzak chaketurik, Arantzazuko erabakiak Euskaltzaindiak berak hildakotzat emateko zorian eta ia-ia jukutri-bidez Arantzazuko erabakiei eusten. Nun ikusi da horrelakorik? Euskaltzaindiak ez du baimenik behar. Analfabetoak Ikastolara! Eta kitto!". Oraino Larresoro.

Beafoñdeola. Gogo-azuki ez dira, inoiz eta inun, orreka erabakitzen, zirt-eta-zart. Gogoak gerria mearra du, urak bezala. Sortzez eta izatez, sorgiñ, idurikoa da eta ezin-gonez aurkitzen da orrelako molde zantzarretan. Esku sotilagoekin tratatzeaz luke gura.

Es da memori txarra duakoa, ez. Baita zera ere! Nere aiton eta arri filosofo izan zan ark esaten zuanagatik, alegia, ez dela ero aundiagorik, mozkor, itxu, gora eta memori txarragorikik bere komentzientziara beragan akatsa auzk ipiñirik dabiliena baino.

Gogoratzen bai-gera ongi, gara batean, eskuakidun izatsko ikasle zebillen garai artan, zer-nolako itz "gozo" erabiltzen zituan euskera ongi zekitonenengatik. Aundiki ongi euskera jasotzerik izan zezan, ekin bateko lanean jardun zirarik, eta gero erakutsi ziotenak "purisista" eta "gramatikalarriak" eta bai-al-dakik zer gelago ziran, onen auz. Zerdedozer ikasi zuten, ez berak izaten duan sinbala, eta orre ez bere "purisista" eta "gramatika" iforri indarrez utziaperatu naliaz. Ez da "asmatzaillea", "asmatzaillea" baitzik erakutsiaz, eta txorberkietako beste abar luzegoa ere, "nir bai ni aifako maixu"!

Desafaltzian izan gurañk etziri ziranean asto beltzarriak eta bi esan zituan Stalin batagatik. Nolan-tan baiñan koipkeria edo "culto a la personalidad" onartu? Tira, tira, orri orri batean "degradazioa" zan. Orrekorik ez zuan agintzen "humanismo" jator batek. Au mito bat zan, eta mito gutxiak ezereztu egin bear ziran. Orain berriz, ba-ditru "mito Mitxelena". Orri itatsai nai digula, Orain berretzeokak ditugu mito batuek. Noiz arte? A! atsegin damalgun bitartean. Baiñan bi-

Goazen mamira zuzenki: —"Arantzazuko erabakiak Euskaltzaindiak berak hildakotzat emateko zorian eta ia-ia jukutri-bidez Arantzazuko erabakiei eusten"!

Gizona! Ori trojedria! Aipaturiko Euskaltzaindia ez da nunbat besterik "robot" eta "marioneta" baino, ez bai du zalantzatan sartzeko eskubiderik ere, are gutxiago orandiki zalantzatan mugitzez. Nere uestez, bazuen eta badu aritarako arrozirik franko, arriak ezpadi.

Bazuen, bai, Euskaltzaindiak zalantzatan murgiltzeko arrazoirik asko, baita, zalantza garbitu ondoren, "beste" bide bat arteko ere. Izan ere, Euskaltzaindiak orango ontan beldurgarizko utsa edo (pelota-jokoa maite bat dut) "kale" egin: du Lojikaren kontra.

Porruak baratzan ederrak dira, ez ordea Lojikan.

Beraz, zertan datza uts edo "kale" orri? Ara, egia eson, lotsa ematen dit eta ez txikia ere, lelo bera aoran eta human erabili bear orrek.

Duela 25en bat urte, Aita Villasantek eta nik (nik gauz geiago agian) Lojika berdintsuak ikasi genduen. Delako "silojismoak" egiten ere erakutsi ziguen.

Geroztiko lanak oztupo ez izanik, Villasantek gogoan izango du onoko erregela au, alegia, konklusio edo ondorioak ez duela zabalagoa izan bear premisa edo aurrez-ipiniak baino.

Bistan dagoen gauza da premisa estua bada, konklusioa zabalda ezin ditekera izan, premisa bakarkikoa bada ezinezkoa dela konklusioa orotarra edo unibersala izatea.

Adibidez, ongi doa silojismo au: Gizonak ilkorrik dira Pello gizona da. Pello ilkorra da.

Silojismo orri zuzena eta egiazkoa dela konprentitzeko ez dago zergatik Salamankara joanik. Aldameneko Pello izatea aski da noski. Baina, norik esan dezake orain datarren silojismoa egiazko lojirik zuzenki atxikia dagoela?

Pello errotaria da. Pello gizona da. Gizonak errotariak dira.

Ori ez Pello errotariak ez-eta bere errot-

ko astoak ere ez lukete onizat emango. Bada, uts ordantze bertan arestian erori da Euskaltzaindia, oarkabez edo jakinaren gainean.

Arantzazuko Batzar famatu artan zer esan zen eta zer "otoiztu edo erregetu" euskera literario edo ikasiri buruz, lekuo naiz, an izan bai nintzan eta egon, beste askoren artean, orna xuriaren ondoan eserita. Bainan, an, Arantzazun, "begi onez ikusiko dela" artu zen erabakia ze lojika arcaoren bidez biurtu da "nai-eta-ekzo" edo "sine qua non" baldintza?

Beldur naiz, beldur, aintzinako ilarriak ez ote diran mugitzen asiak eta buruak altxatzeko zorian ez ote dauden (Aristotelesi utz dieogun baketan) Leibniz, Hamilton eta egungo logistikaren egileak. —Quos ego! diona Birjiliok. Nik orie!

Egia bera ezin bada inori ezarri indarkezia—quia nominor leo— egia ez dena nolaz ezarri indarkezia?

Euskaldunak gubernatzeoko euskera eza gutzea aski dela uste dutenak oker dijoaz, euskalduna ez bai da euskera soil soilki, auzituz gauza geiago baizik.

ZERUKO ARGIA eta azpiko euskal integrismoa.

Azken puntu au kenduz gero, ene lantxo au "Zeruko Argia"-ri eskaini nion argitaratzeko. Zuzendari den Yone Azurzak itzuli zidan nere artikulua au, esanaz, "banatzaile" zela, jator eta nobleki aitortuz, zeren kausa argitaratua ez zen izan.

Nobleziari noblezia zor zaionez gero, badut nik ere zer edo zer asteko "Zeruko Argia"-ri buruz, alegia, naiz eta aspaldidantik "Zeruko Argia"-ri loturik egon, leialtasuneko ari mearraz, "Zeruko Argia"-ko zuzendari aipatutak eta, agian, an atzean egon litekeen aukla edo konseju emailak mede andi baten zordun egin nauela. Ara emen arrazoia. Naiz iragan denboran beste era batera, erabakia zorrotza artua dut ez inoiz eta ez inun euskal integrismoan lanik egiteko. Ni auzitulez edo pluralista naiz, beste mugarik ez izanik euskaltasuna baino.

Errijojako lurraldetatik idozten dut. Arratsaldeko zazpiak. Lur koloreko teilatu zaren gainetik, urrun, ageri da mendikate edo saldo urdin iluna. Ordu da, lana utzi eta usainez bezain kolorez ederra den ardoa edateko.

Jose Lasca

"LARRESORO", zoaz ikastolara

tartean euskera sendatzeko "enplasto" bat asmatu digu lurmurkeriaz, loxintzakerialaz, zurkeriaz osaturikoa. Beraz, irakurleak, sendaerria berak egindako gurilla, edo ezer ez! Bapo zeok!

Euskaltzaindia'ren omenez erabili zituan loreen atsa nola auztu? Or daude idatzirik Orduan, giro artan Euskaltzaindia "imperantea" zan, geldoa, naratka, kemenik gabekoa, aketelxe billera bat. Eta jakintsu berak zitu eta auztu zituan, Euskaltzaindiatik aparte, on! dogozkin arazoak aztertzeko, arako Baiona eta Erromako batzar "fantasma" aiek. Eta zertuz ez ote zituan esan berak sortu eta skulitutzako ikilako orri batuzmetik bar-na erriak aukeratzeko beste erakunde batagatik? Beste aldetik, ixil-nikillan, alegintxo bat bailio gelago egifik mundik sartuko zan maxikutako erakundearen barnean, istoriak berarengatik itzezin ze-zan.

Orain ditugu Euskaltzaindia, orain erakundeak. Orain "disziplinak", batez ere bera agintzen dagoenartean, edo bere itxiki jakintsu bezin biturriak bide zabalda izango dutenartean. Orain, Euskaltzaindi nagusi bat, eta konforme ez dautenak "jebokak" eta "arlotekeriak" murgilduak. Orain, "gu demokratik" "errekomentazioak" bearkizuan

biurtzen... Gu bai-gera orain agintariak"!

Gurindutakoa, igurtzitakoa bere gogora ez ba-behik! Onetaz ere, urte askotan bisirik irauten duetaz, ikusiko duala bere memoriaren ederra, esangue nuke. Ber-bera mito biurtzen ez bada.

Gizon zurtoenak ere ezin erabili zuk Z. A. n. Garagarrialla-ren il gareneko zenbakian, erabiltzen dezun aifia bai. Olorok! Eta zer da beste ura? Alegia, Euskaltzaindia'ren "errekomentazioak" erabiltzen ez dituna analfabetoa daia eta "dijoia ikastolara"? Politia kontua: nik bezela pentatzen ez duana analfabetoa eta "jebos". Anitz esker, demokrata, "humanista" eta xoxialista jaun jakintseu orri!

Euskararen arazoak oraindik teoriatan dabil, eztabaidan, eta iforik ez daki zeifiek duan arazo edo bide otea, zuek ala gu. Einstein batek, ontan ongi dakizu, teori mailan izan zituan berarekin bat ez zetozenak, beste iritziokak, eta auek ez zuten Einstein ikastolara bidali, ez ta onek ere beste iritziokak.

Zuk bidali bear ote dituzu ba, zuri esker erakutsi zituen irakasleak ikastolara, lenagoko arazoekin jarraitzen duela? Ez ote zaitu bururatsen zure ikas-

leak ere zuek erabiltzako neurri motz orretaz neurri zaituztekeala?

Garbigio, Zure arazoetara; goi-mailako politikalaria zala ueste izan ta, erakunde bat osaturik, marxista-leninistak sartu zituztikolako bere frakasoa ikusirik, politika-zientzia ikastera, "dijoia ikastolara".

Batuzema (?) zabaldu nai eta egundozagutu degun banaketarik aundiana edatu duana, munduotzia ikastera, "dijoia ikastolara".

Demokrazia eta "humanismoa" aotan darabilnik jauntxoak, besteen iritziak onetaz ez dituna, erreseptorik gabe "zoaz ikastolara" esaten dakiana, gizartetasuna ikastera, "dijoia ikastolara".

Mundua errezenera ditjoanean, ortografi zail eta euskera zailagoaren integrista eta erretrorogadua (osokoiak eta atzerakoiak), "dijoia ikastolara", edo baserriren batera euskera txukun bat ikastera.

Langileleriaren kaltetan besterik asmatzen ez duan karreeraduna, ez al degu bidaliko eskola zenbat kostoztan dan nekez ikastako sendi beartu baten ikastola dan etxera?

Gizon bat, otsaundiz astitako gauz gutzitan pote eginfagatik, errespetagarria da. Baiñan pote egindako arazoetan, beste iritziokien erreseptorik gabe baldin ba-dabil, zer esango?

Jauna, asko jakingo dezun, baiñan "ikastolara", ixildu... ta kito!

OLAZABAL DABER KABIER